

LEKUONA FABRIKA

Kultur sorkuntza eta herritarrak erdian jarri dituen topalekua aurki irekiko da



KULTURA / Maider Iantzi Goienetxe

Heldu den ostegunean, maiatzak 27, zabalduko ditu ateak Erretereriako

Lekuona Fabrikak (Ugarritza hiribidea, 1). Oihartzun ibaiaren ertzean dagoen fabrikak leku berezia du herritarren memoria emozionalean. Lehen ogia egiten zen eta asko gaztetan gaupasen ondoren bertara joaten ziren croissantak jatera. Lantegia itxi zenean urte luzez hutsik gelditu zen eraikina. Kultur proiektu baterako gune izatea erabaki zenean, oztopo handiak izan zituen bidean, desadostasun politikoengatik batetik eta, bestetik, bi sute eta

Erretereriako kultur amaraun biziaren bihotza izateko bokazioa du Lekuona Fabrikak: ekosistema antolatzeke tresna izan nahi du, baita herritarren beharren aurrean sentikorra den gunea ere. Egiteko moduetan ausardiaz jokatu du, administrazioaren eta komunitatearen artean egon ohi den hierarkia hausteko asmoz.

pandemia bat tokatu zaizkiolako. Orain, mugimendu handia dabil kanpotik zein barrenetik ikusgarri jarri duten eraikin honetan, fabrika berriz ere martxan hasi den seinale.

Lekuona Fabrikak topaleku atsegin bat izan nahi du, biztanleek bizitzeko. Baliabideak eskaintzen ditu elkarrekin sortu eta etengabe ikasteko.
Jagoba MANTEROLA / FOKU

Liburutegiko funtsak kokatzen ari dira langileak, espazioei azken ukituak ematen, egin-kizun berrietarako prestatzen eta, era berean, egitasmoa bera edukiz hornitzen. Bisita gida-

tuak ere egiten dituzte egunero proiektua eragile zein herritarrei erakusteko eta «feedback oso positiboa» jasotzen ari dira.

Ainara Gurrutxaga gidaritzataldeko kideak sumatzen du «ilusioz eta kuriositatez» hartzen ari dela jendea. «Paradigma aldaketa baten ikurra» da berarentzat, «urrats bat herri industrial batetik kultur sorkuntza erdian jartzen duen herri baterako bidean».

Kudeaketa ereduaren bertan txertatu nahi izan dute jendearen parte-hartzea eta horren erakusle da gidaritzat taldea, EH Bildu eta Elkarrekin/Podemosen Iuren Udaleko eta Dejabu eta Kukai konpainia egoiliarre-



tako kideek osatua. Hori da egitasmoaren berritasun nabarmenetako bat, Gurrutxagaren ustez. «Ez da ohikoa instituzio batek irekitasun hori agertzea. Administrazioaren eta komunitatearen arteko hierarkia hausteko asmoa duelako Lekuonak», nabarmendu du Urko Redondo eta Miren Alcalarekin Dejabu konpainia osatzen duen zuzendari artistikoak.

«Inguruan halako ereduak urriak dira tamalez. Beraz, eguneroko praktikan deskubritu beharko dugu uztarketa nola eraiki. Mundu ezberdinak nola elkar aberastu asmatzeko aukera paregabea da».

Besteak beste, Iñaki Queralt Liburutegiko zinegotzia du lankide gidaritza taldean. Honek kontatu duenez, hilabete batzuk daramate adostasunez erabakitzen eta gidaritza horren arkitekturak nolakoa izan behar duen irudikatzen. «Esperimentu bat da. Politikoki egiten dugun apustua».

HERRITAR PLAZA

Herritarren parte-hartzea zabaldu eta antolatzeko bideak proposatzen ari dira. Oraingoz eszena sortzaileen herri mahai bat eratu da. Kulturarekin lotutako ehundik gora eragile eta elkarte dituzte identifikatuta Erreterian, denetarikoak, eta horien ordezkariekin erabaki taldeak sortzear daude Herritar Plazan.

Herritar Plaza da, udal biblioteka zerbitzuarekin eta arte bizien egonaldi eta mediazio programarekin batera, fabrikaren lan ildo nagusietako bat. Queraltrek adierazi duenez, fabrikaren berrikuntzarik handiena da. «Bertan, eragileek proposatu, lantaldeak sortu eta programazioaren parte bat erabakiko dute».



Ez hori bakarrik: interes antzekoak dituzten herritarren taldeak osatzeko bidea izango da eta deialdi bidez hautatuko dituzten jendearen beharrei erantzuteko proiektuak bul-tzatuko dira.

Eraikinean zehar dauden lanerako espazioek ere “plaza” izena dute: Plaza Luzea, Plaza Txikia... Koloretako plazak ere badira, gortinaz inguratutako espazio mugikorak. «Guztietan gertatuko dira gauzak».

Espazio berean egongo da udal liburutegia, eraikinak dituen hiru solairu nagusietan banatuta. Irakurleen eta liburuaren arteko topaketari ez ezik, komunitatearen eta belaunaldi ezberdinen ezagutza parte-katuei egin nahi die bidea.

Horregatik, ez dituzte ume eta helduen lekuak banandu. Eta «jarduera bat aurki dezakezu atzo eserita ikasten egon zinen lekuan. Lehen espazio itxietan antolatzen ziren ekin-

Eraikinaren terrazan ehun lagunentzako lekua dago. Plaza Luzea deitzen diote eraikinaren atariari. Hortik pasatuko den jende guztia antolatuko diren ekintzen lekuko izango da eta horrek aukera handiak emango ditu, besteak beste, herritarrekin elkarrizketak sortzeko. Jagoba MANTEROLA / FOKU

tzak ikusgarriagoak izango dira hala». Espazioa oso zabala eta malgua da eta altzariak mugi daitezke. Lanerako edo ikasteko txoko isil edo bildua goa behar dutenek ere toki aproposa dute.

SORLEKUA

Gurrutxagak esplikatu duenez, jada Niessen dagoen tokiari gehitzen zaion azpiegitura da. «Erreterian historikoki arte eszenikoek indar handia izan dute eta, ondorioz, mugimendu handia dago arlo ho-

netan. Espazio berri honek bai herrian eta bai Euskal Herri mailan zein kanpoan eszena sortzaileek dituzten beharrei erantzun nahi die».

Hiru espazio moldagarri eskaintzen ditu. Paretak bilduz, toki zabaltzeko aukera ematen dute. Auditorium gisa erabiliko da dimentsio handiko ikuskizunak programatu nahi direnean –eserita ia 700 lagunentzako lekua du; zutik, 1.500entzat–, baina ez da hori izango lehentasuna.

«Urte batzuetan lehorte handia egon bazen ere, batez ere kultur baliabideak ia pribatizatzeraz iritsi zirelako, duela hamar bat urtetik Udalak kultur instalazioak zabaltzeko nahia izan zuen. Ordutik, gutxika-gutxika, erresidentziak antolatu dira Niessen kulturgunean, baita mediazioak ere. Orain errealtate horri gorputza eman nahi zaio», azaldu du Dejabuko antzezle eta zuzendariak.

Liburuak kokatzen, espazioei azken ukituak ematen, udal langileak eginkizun berrietarako prestatzen eta, era berean, egitasmoa bera edukiz eta norabidez hornitzen ari dira orain

Espazio bitxiak sortzen dira. Terraza bat dago ehun lagunentzat. Plaza Luzea deitzen diote eraikinaren atariari. Bertako ekintzen lekuko izango dira pasatzen diren herritar guztiak

«Guretzat garrantzitsua da sortzaileei lanerako lekua eskaintzea, egitura oso hauskorrak izaten baititugu gehiengotan, prekaritate handiarekin. Kultur sortzaileek egiten duten lanari errekonozimendu bat egitea ere bada, gizartearen ehuntze horretan ezinbesteko pieza baitira. Bultzada handia emango digu sortzaileei. Erresidentzia programak eta mediazioek (arteak eta herritarrek elkar aberasteko sortzen diren zubia, terminoa hobeto ulertzeko) herritarrengan inpaktu oso positiboa izango dute seguru».

BI SAIL BATERA

Errenteriako Udaleko bi sail txertatuko dira Lekuona Fabrikari: Kultura eta Liburutegia. «Elkarlanak finkatuko ditugu, eta proiektu berdinetan lan egin. Oso interesgarria izango da», adierazi du Queraltek. «Administrazio publikoan halako bideak egitea konplexua izaten da, ez dugu ohiturarik. Guk ariketa egingo dugu».

Orain elkar ezagutzen eta lantalde mistoak sortzen ari dira. Langileekin formakuntza sakon bat egiten ere bai. «Oso prozesu polita izaten ari da. Hutsuneak identifikatu ditugu, langileen kezka eta beldurak, deserosotasunak... konfort egoeratik atera eta halako erronka bati heltzea ez delako erraza. Langileria egiten ari den esfortzua oso handia da eta eskertzekoa da duten jarra proaktiboa».

ERALDATZEKO TRESNA

«Oso erronka potoloa da, aldi berean oso polita, eta ilusioz beteta gaude», agertu du Iñaki Queraltek. Kultura beste modu batean ikusteko aukera da, «benetako parte-hartzea bermatuta». «Topaleku atsegin bat» da berarentzat Lekuona,



Liburutegian, ohi bezala liburuak eta irakurleak arteko topaketa posible egiteaz gain, komunitatearen eta belaunaldi ezberdinen arteko ezagutza partekatuei bide egin nahi diete. «Lekuona» izenaren letrak mugikorrak dira eta hitz ezberdinak osatzen dituzte, etengabe, fabrikari gertatuko denaren ikur gisa. Jagoba MANTEROLA / FOKU



«Joera dugu gauzak gehiegi finkatzeko. Baina prozesuak malguagoak izan behar dira, askeagoak. Ez daukagu beldurrik okertzeko eta beste bide bat hartzeko», agertu du Queraltek

Lekuona Fabrikaren eraikina, ogi fabrika izan zena, ederra eta ikusgarria da. Bertatik Errenteria oso desberdin eta polit ikusten da. Beste erakusleiko bat eman dio herriari

herritarrek bizi behar dutena. Baliabideak eskainiko dituzte komunitatearen etengabeko ikaskuntzarako, kultura jendartea «eraldatzeko tresna» izan daitekeelako. Kritikoagoak izateko, besteak beste. Ekonomia ere estrategikotzat jotzen dute. «Sormen prozesuak izango dira ardatza. Horietan

pertsonak aberastu eta ezagutza partekatuko dute».

Ainara Gurrutxagarentzat «espazio ireki bat» da fabrika berria, «garaikidea, sorkuntzarako eta elkarbizitzarako gunea. Baina, batez ere, egokitu zaigun testuinguru gogorrean arnagune bat, elkar elikatze-ko eta zaintzeko».